

# 2018ko UDALEKUAK





euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA  
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

2017ko lehen esperientziaren ondoren, EMFk udalekuak antolatu ditu bigarren urtez mendizale gazteenentzat. Aurten, bi txanda egingo dira, adina kontuan hartuta, eta dagokien mailaren arabera antolatuko dira jarduerak. Lehenik, txanda bakoitzari dagozkion programak azalduko ditugu, eta, ondoren, programa bakoitzaren baldintza bereziak.

## **PROGRAMAK**

### **1. AUKERA: Bernedo (Arabako Errioxa)**

2004-01-01etik 2006-12-31ra bitartean (biak barne) jaiotako gazteei zuzendutako jarduera.

Data: ekainaren 25etik 30era.

Ekainaren 25ean, autobusak parte-hartzaileak jasoko ditu Donostian (09:00etan izango da irteera), Bilbon (10:00etan) eta Gasteizen (11:00etan), eta Bernedora eramango ditu; jardueretan egin beharreko lekualdaketak ere barne daude. Azkeneko egunean, “ate irekien jardunaldia” izango dugu, eta gurasoek jaso behar dituzte haurrak.

#### ➤ **1. eguna: orientazioa, teoria eta praktika.**

Aterpera iritsi; aurkezpena egingo dugu, eta bizkar-zorroak utziko ditugu. Okongo Andre Mariaren baselizarantz irtengo gara, eta orientazio-ikastaro txiki bat egingo dugu han. Bazkaldu ondoren, atsedengunean, orientazio-praktika bat eta orientazio-jolas bat egingo ditugu.

Aterpera itzuli, afaldu eta lotara.

#### ➤ **2. eguna: mendi-irteera Lapoblacionera, eta korapiloak egiten eta soka erabiltzen ikasteko lantegia**

Gosaldu ondoren eta bizkar-zorroa prestatu ondoren, irteera zirkular bat egingo dugu Lapoblacion haitzera, eta gailurrean bazkalduko dugu. Ondoren, korapiloak egiten eta soka erabiltzen ikasteko lantegia egingo dugu (eskudela, soka finkoa...), materiala ezagutzeko, eta praktikak egingo ditugu taldeka.

Aterpean afaldu eta lotara.

#### ➤ **3. eguna: rappela, korapiloak eta soka**

Gosaldu ondoren eta materiala prestatu ondoren, Meanora joango gara, rappela egiteko. Bazkaldu ondoren, Peñaltara igoko gara.

Bernedora itzuli, afaldu eta lotara.

#### ➤ **4. eguna: Cruz del Castillora igoera**

Gosaldu ondoren, Lagranera joango gara, eta Cruz del Castillora igoko gara, San Kiliz kobazuloa zeharkatuz (zikintzeko arropa eta kopeta-argia eraman beharko dira). Gailurraren inguruan bazkalduko dugu, eta GR-tik itzuliko gara Bernedora.

Afaldu eta lotara.



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA  
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

➤ **5. eguna: eskalada Kanpezun**

Kanpezura joango gara eta, inguru hartako bidexken saretik, komentuko eskalada-eskolara hurbilduko gara: eskalada-praktikak. Eguraldi ona egiten badu, arratsaldean, Bernedora itzultzeko bidean, Kanpezuko erreka igerilekuaz gozatuko dugu.

Bernedora itzuli, afaldu eta lotara.

➤ **6. eguna: San Tirsora igoera, eta ate irekien jardunaldia, gurasoen parte-hartzearekin**

Taldearen azken gosaria; aita-amak iristen direnean, San Tirsora igoko gara denok batera. Elkarrekin bazkalduko dugu, eta aterpera itzuliko gara, hurrengo batera arte agurtzeko.

## **2. AUKERA: Soldeu (Andorra)**

2001-01-01etik 2003-12-31ra bitartean (biak barne) jaiotako gazteei zuzendutako jarduera.

Data: uztailaren 16tik 22ra

Uztailaren 16an, autobusak parte-hartzaileak jasoko ditu Gasteizen (09:00etan izango da irteera), Bilbon (10:00etan) eta Donostian (11:00etan), eta Soldeura (Andorra) eramango ditu; halaber, uztailaren 22an bueltan ekarriko ditu gazteak (geltokiak alderantziz izango dira). Jardueretan egin beharreko lekualdaketak ere barne daude. Federazioko arduradun bat izango da uneoro taldearen ondoan.

➤ **1. eguna: bidaia**

Hotelera iritsi, ongiatorriko janaurrekoa eta programaren aurkezpena.

Afaldu eta lotara.

➤ **2. eguna: ibilaldia eta Pico de la Serrerara igoera**

Gosaldu ondoren, Ransol haranera joango gara, eta handik hasiko dugu ibilaldia; taldearen maila kontuan hartuta eta eguraldia lagun izanez gero, Pico de la Serrera igoko gara (aukerakoa). Ibilaldian zehar bazkalduko dugu. El Serrat porturaino jarraituko dugu, hantxe izango baitugu zain Soldeura itzultzeko autobusa.

Hotelean afaldu, eta lotara.

Jarduerari buruzko datu teknikoak: 1100 metroko desnibel positiboa, gailurra barne; 1300 metroko desnibel negatiboa; 11,5 km-ko distantzia gehienez.

➤ **3. eguna: raftinga eta arroilen jaitsiera**

Rialpera joango gara: raftinga egiteko ibai onenetakoa da Noguera Pallaresa. Bazkaldu ondoren, inguru horretako arroilarik ezagunenetako bat egingo dugu, Collegats deritzona.

Hotelera itzuli: afaldu eta lotara.



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA  
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

#### ➤ **4. eguna: ibilbide zirkularra, Pic de FontBlanca**

Gosaldu ondoren, Sortenyko Parke Naturalaren sarrerara abiatuko gara, balio handiko erreserba botanikoa ezagutzeko (inguru honetako 75 lore enblematiko). Rialpeko haranean gora egingo dugu, Besaliko muinoraino, eta muinotik gorantz jarraituko dugu, Fontblancako ertzetik gailurreraino (aukerakoa). Cabana de Castellà haranetik itzuliko gara; mendi-pinuen baso eder bat zeharkatuz itzuliko gara hasierako puntura. Hotelera itzuli: afaldu eta lotara.

Jarduerari buruzko datu teknikoak: 1200 metroko desnibel positiboa/negatiboa, gailurra barne; 12,5 km-ko distantzia gehienez.

#### ➤ **5. eguna: ferrata eta bisita kulturala**

Hoteletik irten eta via ferrata hasiko dugun punturaino joango gara. Jostagarria izango da, eta Madriu haranaren eta Eskaldes eta Andorra la Vella parrokien ikuspegia izango dugu. Coll Jovellen (ferrataren amaiera) bazkaldu ondoren, Vall del Madriutik (Gizadiaren Ondare Historikoa eta UNESCOk babestua) itzuliko gara autobusera (1h 30'); autobusak hiriburura eramango gaitu, Casa de la Vall bisitatzeko (Andorrako Parlamentu zaharra).

Hotelera itzuliko gara, eta GPSa erabiltzeko oinarritzko ikastaroa egingo dugu (azkar itzultzen garen arratsalde guztietan egingo dugu, GPSa ezagutzen hasteko).

Afaldu eta lotara.

#### ➤ **6. eguna: ibilaldia eta gaua goi-mendiko aterpe batean**

Hurrengo egunerako poltsa prestatu ondoren eta gosaldu ondoren, oinez irtengo gara hoteletik, Vall d'Incleserantz; bizkar-zorroa handiagoa izango da gaur: pisua, arropa... Querol aintziretatik hasiko gara, eta Pico Querolen gailurrera iristen saiatuko gara; Cabana Sorda aintzirarantz zuzenduko gara: ondo merezitako ogitartekoa jango dugu hantxe. GRPtik, Juclar aterpera joango gara, eta han hartuko dugu ostatu (afaldu, lo eta gosaldu).

Jarduerari buruzko datu teknikoak: 1000 metroko desnibel positiboa, gailurra barne; 14 km-ko distantzia gehienez.

#### ➤ **7. eguna: itzulerako bidaiak**

Lehenengo orduan, aterpetik Vall d'Inclesen sarrerara jaitsiko gara, eta autobusa zain izango dugu: ibaian apur bat garbitu, arropak aldatu, eta etxerako bidea hartuko dugu; bidean bazkalduko dugu. Itzulerako bidaiako geltokiak joateko bidaiak egindako berak izango dira, baina alderantziz.

Jarduerari buruzko datu teknikoak: 600 metroko desnibel negatiboa.





euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA  
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

## **BEHARREZKO MATERIALA**

### **1. AUKERA:**

- Poltsa edo petatea, aste osorako arropa eta materiala eramateko.
- Bizkar-zorro txikia, eguneko jardueretarako.
- Lo-zaku fina; maindire-zakua gomendatzen da (aterpean badaude tapakiak).
- Eguzkitako krema, eguzkitako betaurrekoak eta bururako txapela.
- Kantinplora (plastikozko botilak ere balio du).
- Dutzarako eta norberaren garbiketarako tresnak (eskuoihala, xaboia, hortzetako pasta...).
- Bastoiak (gomendagarria).
- Jantziak:
  - ✓ Mendiko botak edo trekking-eko oinetakoak.
  - ✓ Aldatzeko arropa (galtza luze bat eta mahuka luzeko bi elastiko, gutxienez).
  - ✓ Polarra edo haizetik babestekoa (gailurretan gozatu ahal izateko).
  - ✓ Euritakoa.
  - ✓ Pijama (aukerakoa).
  - ✓ Bainu-jantzia eta txankletak.
  - ✓ Espeleologia egiteko: zikintzeko arropa, osoko jantzia (gomendagarria), txandala, euritako zaharren bat... eta kopeta-argia (nahitaezkoa).

### **2. AUKERA:**

- Bizkar-zorro handia edo poltsa edo petatea, aste osorako arropa eta materiala eramateko.
- Bizkar-zorro handia, eguneroko jardueretarako (batez ere azken bi egunetarako).
- Lo-zaku fina; maindire-zakua gomendatzen da (aterpean badaude tapakiak); kopeta-argia (aukerakoa).
- Eguzkitako krema, eguzkitako betaurrekoak, bururako txapela eta eskuzorroak.
- Kantinplora (plastikozko botilak ere balio du).
- Dutzarako eta norberaren garbiketarako tresnak (eskuoihala, xaboia, hortzetako pasta...).
- Bastoiak
- Jantziak:
  - ✓ Mendiko botak, trekking-eko oinetakoak eta oinetako zaharrak (arroila jaisteko).
  - ✓ Aldatzeko arropa (kotoizko zenbait elastiko, batez ere rafting egiten dugunean eta arroila jaisten dugunean neoprenoaren azpian janzteko).
  - ✓ Polarra edo haizetik babestekoa (2000 metrotik gora egongo gara askotan, eta, dena ondo irteten bada, baita 3000tik gertu ere).
  - ✓ Goretexa (euritakoa edo kapa baino hobe).
  - ✓ Pijama (aukerakoa).
  - ✓ Bainu-jantzia eta txankletak.



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA  
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

## **BESTE OHAR BATZUK: prezioak, zerbitzuak eta menu bereziak**

Jarduerak, egonaldia, mantenua eta materiala doakoak izango dira 1. aukerako parte-hartzaileentzat, eta 2. aukerako parte-hartzaileek, berriz, 180 € ordaindu beharko dituzte pertsonako.

Parte hartzeko, **nahitaezkoa** izango da aurtengo federatu txartela izatea, eta, 2. aukeran, Pirinioetako estaldura ere izan behar dute.

20 lagunek hartuko dute parte gehienez ere bi aukeretako edozeinetan. Leku-kopurua baino handiagoa bada eskaera, EMFko federatuaren antzintasuna hartuko da kontuan, eta baita eskaerak jaso diren ordena ere.

Aterpeko eta hoteleko jangeletako arduradunek menu berezien beharrari buruzko informazioa eskatu digute, alergiak dituztenen, zeliakoak direnen edo gaixotasunen bat dutenen kasurako. Horrekin lotuta, dagokion espezialistak (alergialaria, endokrinarioa...) sinatutako osasun-ziurtagiria eskatzen dute zentroek, eta agiri hauek aurkeztu ezean, mezu berezirik jarriko ez dutela jakinarazi digute: aitaren, amaren edo tutorearen eskaera, dagokion osasun-ziurtagiria eta jan ezin duten zerbait jaten badute jarraitu beharreko protokoloa. Agiri horiek aurkezten ez badira, eskaera atzera botako da.

2. aukeran, kontuan izan, adin txikikoak atzerrira bakarrik edo guraso-ahala ez duen helduren batek lagunduta joaten direnean, guraso-ahala duten pertsonen baimena beharko dutela. Behin eskaera onartu ondoren, interesa izan dezakezen tutoreei informazioa helaraziko zaizue, bai eta Ertzaintzan aurkeztu beharreko agiriak eta eskabide-orriak ere, izapide guztiak bete ahal izateko.

Lehenengo eguneko bazkaria eraman behar da (ez dago sartuta).

Jardueren arduradunek jardueren ordena nahiz ibilaldiak alda ditzakete, eguraldiaren eta inguruaren baldintzen arabera.



euskalmendizalefederazioa

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA  
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

## IZEN-EMATEAK ETA INFORMAZIO OSAGARRIA

1. Hauxe da eskabideak jasotzeko epea:
  - 1. aukera: 2018ko ekainaren 4tik 2018ko ekainaren 18ko (astelehena) 14:30era arte.
  - 2. aukera: 2018ko ekainaren 4tik 2018ko uztailaren 2ko (astelehena) 14:30era arte.
2. Udalekuak – Izen-ematea: eskaerak (ikusi eskaera-eredua) posta elektronikoz bidaliko dira, honako helbide honetara:  
[gasteiz-emf@emf-fvm.com](mailto:gasteiz-emf@emf-fvm.com).
3. Informazio gehiago nahi izanez gero, bidali mezu bat aurreko helbidera.
4. 1. aukeran, ekainaren 19an (asteartea) jakinaraziko dira onartutako eskaerak mezu elektroniko bidez, baldintzak betetzen dituztela ikusi ondoren. 2. aukeran, uztailaren 3an (asteartea) jakinaraziko dira.
5. Eskaera onartu eta berorren berri eman ondoren, jardueretan parte hartuko duen gazte bakoitzaren guraso edo tutoreek baimen-agiria bidali behar dute (bete beharreko agiriaren eredua programan parte hartzeko onartua izan dela jakinaraztean bidaliko zaie); 2. aukeran, atzerrira irteteko baimena eta ordainketa egiteko baldintzak ere igorriko dira.
6. Jarduera amaitu ondoren, memoria bat egingo da, eta argazkiak atxikiko zaizkio berorri. Era berean, argazki horietako batzuk EMFren baliabide digitaletan argitara daitezke (web-orria, Facebook...), bai eta baliabide inprimatuetan ere (Pyrenaica aldizkaria). Beraz, aurreko atalean aipatutako agirian, klausula bat txertatu da, xede horretarako baimena emateko.